

Miren Josune Egia Fernandez
Psikologoa • Campuzano&Tiboli zentroko arduraduna



• BILBO

Zergatik da garrantzitsua paga?

Gurasoen kapritxoa baino, paga haurren garapen pertsonala ahalbidetzen duen hezkuntza-prozesua da.

Pagak edo aste-sariak oinarrizko hainbat helburu ditu haurren heltze prozesu honetan.

PAGAREN FUNTZIOAK

- 1.- Oinarrizko lehen ikasketen aplikazio eredu gisa balio du.
- 2.- Aurreztea bultzatzen du.
- 3.- Haurri bere dirua administratzen laguntzen dio.
- 4.- Haurren independentzia sustatzen du.

1. Oinarrizko lehen ikasketak aplikatzea

Haurrei paga edo aste-saria ematen hasteko aldirik egokiena irakurtzen eta oinarrizko eragiketak (batuketak eta kenketak) egiten ikasten hasten direneko aldia da.

Aste-sariak gutxi gorabehera sei urtetik aurrera du zentzu hezigarria, haurren heltzeko prozesuaren araber.

Haurrek eskolan ikasitakoa praktikan jarri ahal izatea da helburua: zenbatu, batu, kendu..., baita beren dirua zertarako erabil dezaketean administratzen ikastea ere: iristen zaien edo ez, atzerakorik eman behar ote dieten...

liburu gomendagarria



"Educar en la tolerancia y en la responsabilidad",
EOS argitaletxea. Bilduma:
Hezkuntza eta familia. Egilea:
Miren Josune Egia Fernández.

Garrantzitsua da oinarrizko eragiketak ikasten direneko garai honi zentzua aurkitzea aplikazio logikoaren bidez; horrek jakin-mina pizten du eta, hala, ikasten jarraitzeko adorea eman.

2. Aurreztea bultzatzen du

Aste-sariaren beste helburuetako bat aurreztea bultzatzea da. Aste-sariaren kopuru finko bat aurreztu egingo da. Batetik, aurreztutakoaren aurreikuspena egin behar da, epe motzera eta epe luzera, eta, bestetik, haurri aurreikuspen horren xedea ulertarazi behar zaio ("aurreztu dudan diru honekin patinetea, jokoa... eros dezaket"). Aurreikuspen hori etorkizunean sor daitezkeen beharrak (atzerrian ikastea, ikasketabidaia...), ezustekoak, larrialdiak,

gastu garrantzitsuak... aintzat hartuta egin behar da.

Funtsezkoa da aurrezteko ohitura lehen urte horietan sortzea, horrela, betiko ohitura bihur dadin.

3. Haurri bere dirua administratzen laguntzen dio

Beste helburuetako bat haurrek beren dirua banatzen ikastea da, beren gastuetarako nahikoa izan dezaten. Adibidez, sei urteko haur batek gozokiak erostera larunbatetan bakarrik joan daitekeela ikas dezake eta gehiegi ezin eros ditzakeela ikusi, igandean kromoak edo pegatinak erosi nahi izango baititu.

Diru hori xahutuz gero, ez gaituzte engainatu behar: haurri ez diogu falta zaion dirua eman behar, egoera mingarria izan arren, beste lagunak eta anai-arrebak erosten ari direla ikusita. Hau gertatzen denean, garrantzitsua da haurrak frustrazio hori sentitzea; horrela, hurrengoan, egin behar ez zuen gastu hori ez egiten ikasiko du.

Batzuetan, komeni da haurrek horrelako hutsak egitea, horrek dakartzan ondorio naturalak ezagut ditzaten eta ondorioak modu kontsekuente eta ardurasuan beren gain har ditzaten.

Komenigarria da gurasoak lehen erosketa



horien lekuko izatea eta hezkuntza-prozesu honetan gidari aritzea.

4. Haurren independentzia sustatzen du

Haurri askatasuna eta erantzukizuna ematea bere lehen gastuak egiteko oso estimulu garrantzitsua da gurasoengandik independente izatera heltzeko, hauxe baita hezkuntza-prozesu ororen helburua: pertsona independenteak prestatzea, gurasoen etetik joateko adina izatean famili, lan eta gizarte bizitzari, diru-kontuei, etab. aurre egiteko prest egon daitezen eta horietan erabateko independentziarekin molda daitezen.

ERANTZUNKIZUNEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA

Aste-saria haurren gertueneko familia inguruneetik etorri ohi da. Gurasoak arduratu ohi dira aste-saria emateaz, nahiz eta aiton-amonek, osaba-izebek eta aita-ama pontekoei oso eginkizun garrantzitsua duten.

Zehatz-mehatz ezagutu behar da hurrek guztira duten kopurua, kasu batzuetan gehiegizkoa ere izan baitaiteke eta gurasoek beharbada ez baitute horren berri ere.

Aste-saria ez da sari gisa hartu edo erabili behar hurrek ongi jokatzen dutenean, ezta zigor gisa ere hurrek guk uste bezala jokatzen ez duenean. Hezkuntzak erantzukizunean oinarrituta egon behar du, eta ez beldurrean edota zigorrean. Horrela, haurri jokabide arazoak gainditzen lagundu ahal izan-

go zaio. Komenigarria da errefortzuaren eta zigorraren legeak behar bezala erabiltzen jakitea haurren portaera aldatzerakoan. Ahal den guztietan errefortzu positiboa erabiltzen saiatuko gara, haurrentzat onuragarriagoa baita; zigorra azken aukera izango da. Zigorra egin den hutsegitearekin erlazionatuta egongo da eta denboran al bait lasterren gauzatu behar da.

Hainbatetan, gurasoek ez dute behar bezala erabiltzen aste-saria, kendu egiten baitiote haurri gaizki jokatu badu edo sari gisa ematen baitiote zintzoa izan bada. Aste-sariak xede hezigarria du eta, beraz, ez luke haurren jokabide egoki edo okerraren arabera egon behar.

Adibidez, zigorra astelehenean jartzen bada eta haurri aste-saria igandean kentzen badiogu, zigorrak zentzua galtzen du denboran. Funtsezkoa da zigorra egun berean gauzatea; ahal izanez gero, zigorra egindako hutsegitearekin erlazionatuko da.

Aste-saria astero eman behar da. Aste-saria hilero emanez gero, hurrei luzeegi egiten zaie eta hezkuntza-metodo honek bete nahi dituen helburuak erraz galtzeko arriskua dago.

Aste-sariak familiaren ahalmen ekonomikoarekin, haurren adinarekin eta bere eguneroko ingurunearekin bat etorri behar du. Banaketa egiterakoan gurasoei sen ona erabiltzeko eskatzen zaie beti. Ez da komeni zorrotzia izatea, ezta oso eskuzabala ere. Batak zein besteak haurra kalte dezake eta arazoak sortu. Ematen diogun dirua ez bada nahikoa bere gastuak administratu ahal izateko edo haurra beste lagun batzuekin alderatuta egoera txarragoan sentitzen bada, aste-saria ez da lortu nahi zen xedea betetzen ari. Diru asko ematen bazaio, behar bada haurra nahastu egingo dugu. Itxaropen irrealak sor diezazkiokegu eta ez du baloratuko gastuak eta

aurrezteko egin beharreko ahaleginak dakartena. Bi kontzeptu horiek funtsezkoak dira etorkizunean dirua ondo administratzen jakin dezan.

Aste-sariak garapen pertsonala eta aurrezteak bultzatzen du, oinarritzko eragiketak ikasten jarraitzeko adorea ematen du eta haurren independentzia sustatzen du. Aste-saria beste urrats bat da hain konplexua den hezkuntza-prozesuan. •

¿Por qué es importante la paga?

La paga estimula el crecimiento personal, el ahorro, incentiva el aprendizaje de las operaciones básicas y fomenta la independencia del niño. La paga constituiría un paso más en todo este proceso educativo tan complejo. El periodo óptimo para comenzar a dar la paga a los niños corresponde con el periodo de inicio de los aprendizajes de la lectura y de las operaciones básicas: suma y resta.

Proporcionar libertad y responsabilidad al niño para que efectúe sus primeros gastos constituye un estímulo importantísimo para la búsqueda de la independencia de los padres que es el objetivo de todo proceso educativo: formar personas independientes que cuando tengan la edad de abandonar el nido familiar estén preparados para afrontar el mundo familiar, laboral, social, económico... en los que se pretenden que se desenvuelvan con total independencia.